




Jon URBE | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

AZKENEAN KONTURATU DA JENDE HANDIA

Gustatzen zait eskua emanda ibiltzea; berdin nire pareko diren parkeko lagunekin, berdin ni baino askoz handiagoak diren etxekoekin. Ezkerra bati eta eskuina besteari. Horrela noala, seguru sentitzen dut pausoa. Badakit gora-goraino egin dezakedala salto erori gabe, eta hegan egiteko gai naizela amestu. Badakit eroriz gero nire sudurrak lurra ukitu baino lehen jasoko nautela gora. Gustatzen zait ondokoekin pausoa partekatzea, eta soka berdineko sentitzea. Bakarrik joatea baino askoz hobea da elkarri eskua emanda joatea.

Eta, azkenean, horrekin konturatu da jende handia ere. Bazen garaia. amagoia.mujika@gaur8.info

EITBko «debate» programa

**Josu Imanol
Unanue**

Aurreko batean, EITBko “Debatea” programa ikusten egon nintzen. Solaskide gisa han egon ziren, besteak beste, Joseba Beloki, Garbiñe Biurrun, Ion Telleria eta Manu Aguirre. Bar-ka nazatela beste biek baina ez naiz euren izen-abizenekin akordatzten.

Hasieran, eztabaida edo saioa bera inter-tesantea iruditu zitzaidan, baina halako batean Manu Aguirreraren presentzia sum- tzen hasi nintzen. Zehatzago, bere irainak entzuten, eta harritu egin nintzen edozer esateko daukan ausardiarekin.

Han hasi zen liburuxka bat astintzen, de- naren irtenbidea han zegoela esanez. Gero- xeago jakin nuen bere baitan «egia berda- deroa» jasotzen zuen liburuxka konstituzio

espainiarra zela. Egia esan, orri gutxi horie- tan baldin badaude guztiaren azalpenak eta denerako irtenbideak, irakurri egin beharko dugu! Tira, egiari zor, une honetan nahiago dut beste edozer irakurri...

Manu Aguirreraren berben etorriarekin harrituta nengoela betiko erretorika mal- tzurrera nola hurbiltzen zen sumatu nuen, bere ideien kontra dagoena ETakide bihur- tzeko jokora. Eta horretan hasi zela Ion Te- lleria GARAKo kazetariaren izena eta «*tiro en la nuca*» espresioa elkartu zituen esaldi berean. Solaskide gutxik esan zuten ezer; Garbiñe Biurrun izan zen horrelakorik inori esan zaiola besterik gabe leporatu nabar- mendu zuen bakarra. Zelan ez, Manuk ez zuen zuzendu esandakoa eta bere lekuan

eta betiko aurpegiarekin jarraitu zuen. Lo- tsagarria iruditu zitzaidan solaskide bati era horretan eraso egin eta moderatzaileak ezer ez esatea. Badirudi estilo liburu berrian ez dela zehazten horrelakoetan zer egin behar den, baina, asko eskatzea al da solaskide bat programatik kanporatzea? Zer gertatuko zen Manuk neurri bereko erasoak jaso izan balu? Ez dut pentsatu ere egin gura!

Nik argi daukat ez dudala horrelako pro- gramarik ikusi nahi, are gutxiago gonbida- tuen artean Manu Aguirre baldin badago. Gomendio bat EITBkoei: Manu Aguirrek es- ku artean astindu zuen liburuxka horren moduko bat egin dezakete, beren progra- metan horrelako erasoak gertatzen direne- an zer egin zehazten duena. •